



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainak 20

Vitoria-Gasteiz, 20 de junio de 2017

Lehendakaritza

ERREFUXIATUEN HARRERA ETA GIZARTERATZEA KUANTITATIBOKI ZEIN KUALITATIBOKI SENDOTZEKO PROIEKTUA AMAITZEAR DUTE EUSKO JAURLARITZAK ETA ESPAINIAKO GOBERNUAK

- **Harrera-sistema arrunta sendotzea da gako nagusietako bat: Eusko Jaurlaritzak, Aldundiek eta udalek parte-hartze zuzenagoa izango dute**
- **Fase pilotuan dagoen proiektu honi esker 50 plaza berri sortuko dira Euskadin, gutxienez, Mediterraneoko krisi humanitarioaren ondorioz etorritako errefuxiatuentzat**

Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna den honetan, Iñigo Urkullu Lehendakariak ondokoa jakinarazi dio Gobernu Kontseiluari: errefuxiatuak Euskadin hartzeko esperientzia pilotu bat abiarazteko lankidetzeta-marko bat amaitzear dutela Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak, "Auzolana Proposamena" izeneko dokumentuan oinarritua.

Lankidetzeta-marko hori Enplegua eta Gizarte Segurantzako Ministerioko Immigrazio eta Emigrazio Idazkaritza Nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren artean gauzatzen ari dira.

Proiektu honi esker, Nazioarteko Babesa eskatu eta jaso eta Mediterraneoko krisi humanitariotik etorri diren pertsonak hartzeko **50 plaza berri sortuko dira Euskadin**, epe motzera. (Gogoratu beharra dago 307 plaza sortu direla Euskadin krisia 2015en hasi zenetik. 450 asilo-eskatzaille pasa dira horietatik baina 46 baino ez zetozen Mediterraneoko birkokatze- edo bizileku-gunetatik).

Krisi humanitarioari aurre egiteko xedearekin Eusko Jaurlaritzak 2017ko hastapenetan egin zituen bi proposamenen emaitza da akordio hau. Bi proposamenak Lehendakariak apirilaren 3an egin zuen Adierazpen Instituzionalean espreski jasota geratu ziren: (1) Errefuxiatuak hartzeko Sistema Sendotzeko Proposamena; eta (2), Bisa Humanitarioen Proposamena.

Bi ekimen horien **xedea** da errefuxiatuak **hartzeko eta gizarteratzeko gaitasuna kuantitatiboki zein kualitatiboki handitzea** eta beren nahia da erantzun eraikitzaileak emango duten lankidetzeta-guneak sustatzea, Enplegua eta Gizarte Segurantzako Ministerioak kudeatzen duen estatu-sisteman jasotako aurreikuspenetan oinarrituta.

Aipatu bi proposamenak 2017ko urtarrilean aurkeztu eta gero, Espainiako gobernuak lehenaren aukerak aztertzeko gogoia agertu zuen. Erantzun baikor horren harira, Eusko Jaurlaritzak “*Auzolana Proiektua. Errefuxiatuak Hartzeko Sistema Sendotzeko esperientzia pilotu bat garatzeko prozedura*” izeneko dokumentua helarazi zion Espainiako Gobernuari. .

Une honetan, eta dokumentu hori oinarritzat hartuz, esperientzia pilotua abiarazteko lankidetzeta-marko bat zehaztear daude bi gobernuak. **Harrera-sistema arrunta sendotzea da gako nagusietako** bat: Eusko Jaurlaritzak, Aldundiek eta udalek parte-hartze zuzenagoa izango dute hasiera-hasieratik. Zentzu horretan, hiru dira **ardatz nagusiak**:

- **Behetik gora** eraikitako **erantzun** bat artikulatzea, oinarritzako erakundeen parte-hartzea bermatzeko hasiera-hasieratik.
- Hartutako pertsonak, hartzaile pasiboak baino, **aktore aktiboak** direla ulertzea prozedura guztian zehar.
- Euskal erakundetako erantzukizun-eremuaren ikuspegitik, egungo harrera-sistema sendotzea, **gizarteratzearen** bidez batez ere.

Irizpide horiei jarraiki, informazio-, komunikazio-, sendotze- eta jarraipen-mekanismoak sartuko dira ere, inplikaturiko eragile guztiak tartean sartuz, Nazioarteko Babesa eskatu eta lortu duten pertsonen harrera eta gizarteratzea hobetzeko xedearekin. Esperientzia guztia dokumentatu egingo da, esperientzia pilotua amaitu eta gero aplikatu ahal izateko.

Eusko Jaurlaritzak, bestalde, Bisa Humanitarioen bidea sustatzeko xedearekin ere Espainiako Gobernuarekin lan egiteko gogoia agertu du ere. Ekimen hori Italian jarri zen martxan 2016. urtean, “Korridore Humanitarioak” izenarekin, San Egidioako Komunitateak eta Italiako Gobernuak lortu zuten akordioari jarraiki. Ondoren, Frantziara hedatu zen ere.

Bere lege-oinarria da Europako Bisa-eredu bateratua arautzen duen araudiko 25. artikulua, lurralde-mailako mugatzeak dituzten bisak emateko aukera aurreikusten baitu arrazoi humanitarioen ondorioz. Bide hori bultzatzea eskatu die Eusko Jaurlaritzak Espainiako gobernuari eta Europako beste gobernu guztiei, ikuspegi humanitariorik larrienak diren egoerak behintzat konpondu ahal izateko.

Enplegua eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK 14 MILIOI EURO BIDERATU DITU GIZARTE ZERBITZUEN FUNTSA HORNITZERA; AURTEN, 20 MILIOI EURO IZANGO DITU

Gobernu Kontseiluak, Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, gaur onetsi du 14.008.000 euro bideratzea Gizarte Zerbitzuen Funtsera, Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroan programatuta. Gobernuak funts honi udal-eskumeneko gizarte-zerbitzuekin lotuta dauden eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema zabaltzeko oinarrizkoak diren proiektuak sustatzeko egiten dion ekarpena da.

Hori da Eusko Jaurlaritzak Funtzari egin behar dion ekarpena, Gizarte Zerbitzuen garapenerako; 2017an 20 milioi euro izango ditu. Funts horri eginiko finantza-ekarpenak Eusko Jaurlaritzari dagozkio batetik, eta, bestetik, foru-aldundiei, koefiziente bertikalarekin proportzioan (% 70,04 eta % 29,96) eta horizontalarekin proportzioan (Araba % 16,45, Bizkaia % 50,66 eta Gipuzkoa % 32,89).

Lurralde historikoen arteko funtsaren banaketa egiteko, koefiziente horizontalak hartuko dira oinarritzat. Gero, foru-aldundi bakoitzak zenbatekoak bere lurralde historikoko udalen artean banatuko ditu, Gizarte Zerbitzuen Erakundearen arteko Organoak onetsitako banaketa-irizpideen arabera; organo horretan daude, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiak eta EUEDEL Euskadiko Udalen Elkarteak. Organo hori izango da finantzatutako proiektuen jarraipena egiteko eta, sei hilerik behin, horien txosten xehatua Finantza Publikoen Euskal Kontseiluari bidaltzeko arduraduna.

2017an, Eusko Jaurlaritzak emandako 14 milioi eurotik gorako kopurua honela banatuko da: Arabako Foru Aldundiak 2.304.316 euro jasoko ditu; Gipuzkoako Foru Aldundiak, 4.607.231 euro; eta Bizkaiko Foru Aldundiak, 7.096.453 euro.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen xedapen iragankorrak xedatzen du egindako eskumen-banaketa onorioz dagokion finantza-doikuntza egingo dela euskal administrazio publikoen artean, finantza-nahikotasuna bermatzeko, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa hornitzeko autonomia-erkidegoaren mailan, foralean eta udal-mailan. Legeak gainera dio eskumeneren birbanaketa horrek eta finantza-doikuntza horrek inolaz ere ezingo dutela ekarri murrizketarik indarrean sartzen den egunean dauden prestazio eta zerbitzuen intentsitate- eta estaldura-mailatan.

2016ko urriaren 14an, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak erabaki zuen Aparteko Funtza eratzea, 20.000.000 eurokoa, Euskal Autonomia Erkidegoko foru- edo udal-erakundeek egiten dituzten Zorroari buruzko Dekretuko prestazioak eta gizarte-zerbitzuak –berriak edo oso gutxi garatuta– hornitzeko beharrezkoak diren jarduketak finantzatzeko.

Ogasuna eta Ekonomia

EUSKO JAURLARITZAK ONETSI DU HIRU URTEZ DOAN LAGATZEA DONOSTIAKO UDALARI SAN MARTIN KALEKO 48 ZENBAKIKO ERAIKIN BAT

Eusko Jaurlaritzak doan lagako dio udalari San Martin kaleko 48 zenbakian dagoen eraikina, 2018ko urtarriletik eta, hasiera batean behintzat, 2021eko abendura bitartean. Udalak berak egin du eskaera, bertan aldi baterako Hirigintzako Sailaren hiri-plangintza, jarduera, hiri-arauketa eta -araudi, obra, kartografia eta hirigintza-informazioari lotutako zerbitzuak eta zerbitzu juridikoa eta herritarren arretari eta artxibo aktiboari lotutako zerbitzuak kokatzeko.

Helburu izango duen onura publikoa kontuan hartuta, posible da tokiko administrazio baten alde planteatu den doako erabilera-lagapena adostea.

Erabiltzeko eskatu den eraikina libre dago 2012ko urtarriletik, eta ez da aurreikusten Eusko Jaurlaritzak hura erabiltzea. Eraikina birgaitu egin behar da, besteak beste gaur egun irisgarritasunari, eraginkortasun energetikoari edo babes akustikoari buruzko araudiak ezartzen dituen eskakizunetara egokitzeko, eta kontuan izan behar da eraikin katalogatua izateak dakartzan mugak. Gainera, itxita izanik ere, eraikinak mantentze-lanen ondorioz gastuak eragiten ditu, eta horiek handitzen joango dira, erabili gabe dagoen denborak aurrera egin ahala.

Hori dela eta, higiezina Euskadiko Ondarearen barruan mantendu eta doan lagatzeko aukera egokitzen jotzen da, udalari bideratuko baitzaizkio mantentzeko lanengatiko gastuak, bai eta birgaitzeko beharrezkoak diren gastuak ere.

Hezkuntza

912.800 EURO IKASTETXE PUBLIKOETAKO ELKARRIZKETA-LAGUNTZAILEEN PROGRAMARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, lankidetzahitzarmen bat baimentzeko erabakia hartu gaurko bileran. Hezkuntza Saila eta Hezkuntza, Kultura eta Kirola, Ministerioaren arteko hitzarmen horren bidez, 2017-2018 ikasturtean Euskadiko ikastetxe publikoetan arituko diren elkarrizketa-laguntzaileen kopurua finkatzen da.

Datorren ikasturtean, hitzarmen hau tarteko, Hezkuntza Sailak 163 elkarrizketa-laguntzaile izango ditu bere menpeko ikastetxe publikoetan, batez ere Bigarren Hezkuntzakoetan eta Hizkuntza Eskola Ofizialetan, atzerriko hizkuntzen irakaskuntza sustatzea helburu hartuta. Hezkuntza Sailak finantzatuko dituen 163 elkarrizketa-laguntzaileen artean, 147 ingelesekoak izango dira, hamar frantseseakoak eta sei alemanekoak.

Hezkuntza Sailak 912.800 euro bideratzen ditu 2017-2018 ikasturtean langile hauen egonaldia finantzatzeko. Hilero jasoko duten diru-laguntzaz gain, Elkarrizketa-laguntzaileen Programan parte hartuko duten pertsonak istripupoliza ere izango dute, eta baita erantzukizun zibila ere, programaren barruko egonaldiak irauten duen bitartean.

Ahokotasuna indartzea

Elkarrizketa-laguntzailea lizentziadun berria edo azken ikasturteko unibertsitate-ikaslea da bere jatorrizko herrialdean. Hari ez zaio irakasle titular baten erantzukizunik esleitzen. Hortaz, ez da irakaskuntzan bera bakarrik aritzen. Beraz, elkarrizketako laguntzaileek irakasleei lagundu besterik ez dute egiten atzerriko hizkuntzako eskoletan, eta euren berariazko eginkizunak, batik bat, ikasleen ahoko trebetasunak indartzera daude bideratuta. Astean 12 orduz ematen dituzte eskolak, irakasle titularrak lagunduta; baina, inoiz ez bakarrik.

Irakasleak koordinatuta eta gainbegiratuta, laguntzaileari, besteak beste, eginkizun hauek eman ahal izango zaizkio: elkarrizketako berariazko praktikak, irakasleen prestakuntza, hizkuntza eta kultura ikasteen oinarritutako materialen prestaketa edo euren herrialdeko kultura irakastea.

Osasuna

2.600.000 EURO BIDERATUKO DITU GUZTIRA EUSKO JAURLARITZAK 2017AN OSASUN ARLOKO IKERKETA- ETA GARAPEN-PROIEKTUAK FINANTZATZEKO

2.600.000 euro bideratuko ditu aurten Eusko Jaularitzak osasunaren arloko ikerketa- eta garapen-proiektuak finantzatzeko. Lehentasunezko bi helbururekin: herritarren osasuna hobetzera zuzendutako I+G+b jardueren eragina areagotzea eta aberastasuna sortzen laguntzea; eta osasunaren arloan ikerketaren eta berrikuntzaren finantzaketa hobetzea, bai barruko bai kanpoko baliabideekin.

Osasuneko sailburu Jon Darpónek gaur jakinarazi dio Gobernu Kontseiluari laguntzen Aginduaren edukia, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileek jaso ahal izango dituztena. Osasunaren arloko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategia 2020an kokatutako deialdia, baita Zientzia eta Teknologia Plana 2020an eta Espezializazio Adimentsuaren Estrategia RIS3 Euskadi-n ere.

Aginduan araututako jardueren azken helburua da herritarren osasuna eta ongizatea hobetzen laguntzea, baita Euskadiren garapen sozioekonomikoan ere, eremu biosanitarioan ezagutzaren sorkuntza, transferentzia edota aplikazioa babestuz ikuspegi translazionala eta lankidetzazkoa duten ikerketa-proiektuen bitartez.

Hala, biozientzia-osasunaren eremuan taxutzen da deialdi hau, arau bakar batean bi laguntza-lerro bereizi barnean hartzen dituena:

- Batetik, osasunaren arloko jardunaren sustapena, osasun-sistemaren gaitasuna sendotuko duten I+G proiektuen bitartez, eta ezagutzaren sorkuntzan eta integrazioan laguntzea osasun-sistemaren eta gizartearen eskariak hobeto betetzeko.

- Bestalde, osasunaren arloko ikerketa estrategikoa bultzatzea, lidergo sanitariotik sortutako I+G proiektuen eta Euskal Herriko gaitasun zientifiko-teknologikoen bitartez, produktu, prozesu edo zerbitzu berrien balorazioan eta garapenean aurrera egitea ahalbidetzeko.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK ONETSI DU NAFARROA ETA IPARRALDEREKIN HIZKUNTZA POLITIKAREN ALORREAN SINATUKO DEN LANKIDETZA HITZARMENA

- **Hiru erakundeen arteko horrelako itun bat bultzatzen den lehen aldia da**

Gobernu Batzordeak gaur onartu du Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren, Nafarroako Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoaren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzeko akordio proposamena. Hitzarmen honen helburua euskara sustatzea izango da eta lehen aldia da hiru erakundeen arteko horrelako akordio bat sinatzen dela.

2016-2020 legealdirako onartutako Euskadi 2020 gobernu programak bere 119. konpromisoan jasotzen du "euskararen hiru lurraldeen erakundeen arteko lankidetzaren" antolatu eta indartuko dela. Hizkuntza politikaren inguruko hiru administrazioen arteko harremana berria ez bada ere eta bikako hitzarmenak dauden arren, horrelako hiruren arteko hitzarmen bat bultzatzen da lehenengoz, beti ere lankidetzaren sakontzeko asmoz. Akordioak ez du eduki ekonomikorik, baina elkarlanerako oinarriak, esparruak eta ekimen zehatzak ezarri dira.

Gaur onartu den akordio proposamenak bost esparruri heltzen dio: hezkuntza eta hizkuntza gaitasuna; euskararen erabilera; gogoeta esparruak eta mintegiak; ikerketa soziolinguistikoa eta corpusa; eta, azkenik, Europako markoan hizkuntza politika garatzeko bideak jorratzea. Arlo hauetan guztietan elkarlanean jorratzeko neurriak aipatzen dira. Hitzarmen marko honen xehetasun guztiak datozen asteotan aurkeztuko dira, tramite administratiboa gainditutakoan hiru erakundeek hitzarmena sinatzean.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 670.000 EURO ONARTU DITU LIBURUTEGIEN FUNTSAK BERRITZEN LAGUNTZEKO

- **Guztira, 50.000 euro bideratuko dira berriki sortu diren liburutegiek funtsak eros ditzaten**

Eusko Jaurlaritzak 670.000 euroko kontu-sail bat onartu du euskal liburutegien funtsen erosketa diruz laguntzeko. Laguntza honen helburua Irakurketa Publikoko Sarea erabiltzen duten hiritarren beharrei erantzutea da.

Ekimen honek bat egiten du urriaren 26ko Euskadiko liburutegien 11/2007 Legean aipatzen denarekin. Honen arabera, Eusko Jaurlaritzako kultura arloan eskumena duen sailak urtero bideratu behar du aurrekontu bat liburu-funtsen erosketa diruz laguntzeko. Horrez gain, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuak zehazten du honen eskumena dela Liburutegien Zerbitzua garatzea eta Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalari dagozkion funtzioak betetzea. Diru-laguntza hauek bi motatakoak dira:

- Berriki sortutako liburutegietara bideratutako diru-laguntzak, funtsak eros ditzaten. 50.000 euro inbertituko dira.
- Aldez aurretik dauden liburutegientzako diru-laguntzak, beren funtsak berriki ditzaten. 620.000 euro bideratuko dira.

Horrela, Eusko Jaurlaritzak bere egiten du liburutegien funtsak elikatzeko ardura, Euskadiko Irakurketa Publiko Sarearekin batera, beti ere erabiltzaileen beharrei erantzuteko. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak funtsak erosteko inbertsioak mantendu ditu azken urteotan eta horri gehitu dio e-Liburutegiko funtsak erosten inbertiturikoa.

Segurtasuna

ONARTU DA ALDERDI POLITIKOEN FUNTZIONAMENDU ARRUNTERAKO URTEKO DIRU-LAGUNTZA

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du alderdi politikoei 2017rako emango zaizkien diru-laguntzen banaketa zehazten duen Segurtasun Sailaren akordio-proposamena.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2017rako Aurrekontu Orokorren Legeak 4.536.000 euroko kontu-saila aurreikusten du Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duten alderdi politikoei funtzionamendu arrunteko gastuak ordaintzeko diru-laguntzak emateko.

Eusko Jaurlaritzak Alderdi Politikoak Finantzatzeko Legean zehaztutako irizpideen arabera eta 2016ko irailaren 25eko hauteskunde autonomikoetako emaitzak oinarritzat hartuz banatuko du kontu-saila alderdien artean.

Ekitaldi honetan, honela banatuko dira diru-laguntzak:

EAJ-PNV	1.750.903,84 €
EH-BILDU	1.033.826,51 €
Elkarrekin-Podemos	690.569,17 €
PSE-EE (PSOE)	558.134,51 €
PP	502.565,97 €

Presidencia

GOBIERNO VASCO Y ESPAÑOL ULTIMAN UN PROYECTO PARA REFORZAR CUANTITATIVA Y CUALITATIVAMENTE LA ACOGIDA E INTEGRACIÓN DE PERSONAS REFUGIADAS

- Una de sus claves principales es reforzar el sistema ordinario de acogida con una participación más directa del Gobierno Vasco, las Diputaciones y los ayuntamientos
- El proyecto en su fase de pilotaje va a permitir la creación en Euskadi de, al menos, 50 nuevas plazas de acogida para personas refugiadas procedentes de la crisis humanitaria del Mediterráneo

Hoy, Día Internacional de las personas refugiadas, el Lehendakari ha informado al Consejo de Gobierno de que los ejecutivos vasco y español están ultimando un marco de colaboración para poner en marcha una experiencia piloto en Euskadi para la acogida de personas refugiadas, basada en el documento titulado "Propuesta Auzolana".

Este marco de colaboración se está desarrollando mediante el trabajo compartido entre la Secretaría General de Inmigración y Emigración del Ministerio de Empleo y Seguridad Social, y la Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación del Gobierno Vasco.

Este proyecto va a permitir, a corto plazo, la **creación en Euskadi de, al menos, 50 nuevas plazas** de acogida para personas solicitantes y beneficiarias de Protección Internacional procedentes de la crisis humanitaria del Mediterráneo. (Se debe tener en cuenta que, desde el inicio de la crisis en 2015, en Euskadi se han creado 307 plazas por las que han pasado 450 personas solicitantes de asilo. Sin embargo, de éstas sólo 46 personas procedían de reubicaciones o reasentamientos del Mediterráneo).

El acuerdo es fruto de dos propuestas que el Gobierno Vasco realizó a principio de 2017, con el fin de hacer frente a la crisis humanitaria. Ambas propuestas fueron explícitamente recogidas en la Declaración institucional del Lehendakari del 3 de abril: (1) Propuesta de Sistema de Refuerzo para la acogida de personas refugiadas y la (2) Propuesta de Visados Humanitarios.

El **objetivo** de ambas iniciativas es **incrementar cuantitativa y cualitativamente la capacidad de acogida e integración** de personas refugiadas y se orientan a promover espacios de colaboración para ofrecer respuestas constructivas, sobre la base de las previsiones establecidas en el sistema estatal gestionado por el Ministerio de Empleo y Seguridad y Social.

Tras la presentación en enero de 2017 de las dos propuestas citadas, el Gobierno español comunicó en abril su voluntad de explorar las posibilidades de la primera de ellas. Sobre la base de esa respuesta positiva, el Gobierno

Vasco entregó al Gobierno español el documento titulado: “*Propuesta Auzolana, Procedimiento para desarrollar una experiencia piloto de Sistema de Refuerzo en la acogida de personas refugiadas*”.

En estos momentos y en base a este documento se está ultimando un marco de colaboración entre los dos gobiernos para poner en marcha esta experiencia piloto. Una de sus **claves principales** es **reforzar el sistema ordinario de acogida** contando con las Comunidades Autónomas, las Diputaciones y los Ayuntamientos desde el primer momento. En este sentido, tres son sus **criterios rectores**:

- Articular una **respuesta** construida **de abajo hacia arriba** que garantice la participación desde el inicio de las instituciones de base.
- Considerar que las personas acogidas no sólo son receptores pasivos sino **actores activos** en todo el proceso
- Desde el punto de vista del ámbito de responsabilidad de las instituciones vasca, reforzar el sistema de acogida actual principalmente por la parte de la **integración**.

En base a estos criterios, se incorporan mecanismos de información, comunicación, refuerzo y seguimiento involucrando a todos los actores implicados con el objetivo de mejorar la acogida e integración de las personas solicitantes y beneficiarias de Protección Internacional. Toda la experiencia será documentada para su posterior aplicación tras la experiencia piloto.

Por otra parte, el Gobierno Vasco sigue dispuesto a colaborar con el Gobierno español en el impulso de la Vía de los Visados Humanitarios. Esta iniciativa se ha puesto ya en marcha en Italia en 2016, con la denominación de “Corredores Humanitarios” mediante el acuerdo entre la Comunidad de San Egidio y el Gobierno italiano. Esta misma experiencia se ha extendido a Francia.

Su soporte legal se encuentra en el artículo 25 del Reglamento Europeo de Visados, que contempla la posibilidad de extender visados con limitación territorial por razones humanitarias. El Gobierno Vasco propone al Gobierno español y al resto de gobiernos europeos activar esta vía, para encauzar, cuanto menos, las situaciones más urgentes desde el punto de vista humanitario.

Empleo y Políticas Sociales

EL GOBIERNO VASCO DESTINA 14 MILLONES DE EUROS A DOTAR EL FONDO DE SERVICIOS SOCIALES QUE ESTE AÑO ASCENDERÁ A 20 MILLONES DE EUROS

El Consejo de Gobierno, a propuesta de la Consejera de Empleo y Políticas Sociales, Beatriz Artolazabal, ha aprobado hoy destinar 14.008.000 euros al Fondo de Servicios Sociales programado en la Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco. Se trata de la aportación que el Ejecutivo hace a este fondo para impulsar proyectos relacionados con los servicios sociales de competencia municipal, y que son fundamentales para el despliegue del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Se trata de la parte que el Gobierno Vasco debe aportar al Fondo para el desarrollo de Servicios Sociales, que en 2017 ascenderá los 20 millones de euros. Las contribuciones financieras a dicho fondo corresponden al Gobierno Vasco y a las Diputaciones Forales en proporción a su coeficiente vertical (70,04% y 29,96%) y horizontales respectivos (Araba 16,45%, Bizkaia 50,66% y Gipuzkoa 32,89%).

La distribución del fondo entre los Territorios Históricos se efectuará en base a los coeficientes horizontales. Posteriormente, cada Diputación foral distribuirá los importes entre los Ayuntamientos de su Territorio Histórico en función de los criterios de reparto aprobados por el Órgano Interinstitucional de Servicios Sociales, del que forman parte el Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales y la Asociación de Municipios Vascos, EUDEL. Este órgano será el encargado de realizar el seguimiento de los proyectos financiados y elevar semestralmente un informe detallado de los mismos al Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

En 2017, los más de 14 millones de euros aportados por el Gobierno Vasco se distribuirán de la siguiente manera: la Diputación Foral de Álava/Araba recibirá 2.304.316 euros; la Diputación Foral de Gipuzkoa 4.607.231 euros; y la Diputación Foral de Bizkaia 7.096.453 euros.

La disposición transitoria tercera de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales dispone que como consecuencia de la distribución competencial efectuada se realizará el correspondiente reajuste financiero entre las administraciones públicas vascas, con el fin de garantizar la suficiencia financiera para la provisión del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales en los niveles autonómico, foral y municipal. La Ley añade que dicha redistribución competencial y dicho reajuste financiero en ningún caso podrán suponer una disminución en los niveles de intensidad y cobertura de las prestaciones y servicios existentes en la fecha de su entrada en vigor.

El 14 de octubre de 2016 el Consejo Vasco del Consejo Vasco de Finanzas Públicas acordó constituir un Fondo Extraordinario dotado con 20.000.000 euros, destinado a la financiación de las actuaciones necesarias para la provisión de las prestaciones y servicios sociales, nuevos o escasamente desarrollados, del Decreto de Cartera, que realicen las entidades forales y municipales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Hacienda y Economía

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA LA CESIÓN GRATUITA DURANTE TRES AÑOS DE UN EDIFICIO EN LA CALLE SAN MARTIN Nº 48, AL AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA

El Gobierno Vasco cederá de forma gratuita desde enero de 2018 y, en principio, hasta diciembre de 2021, el edificio ubicado en la c/San Martín 48 ante la solicitud por parte del consistorio de ubicar temporalmente los servicios del Área de Urbanismo de Planeamiento Urbano, Actividades, Regulación y Normativa Urbana, Obras, Cartografía e Información Urbanística, Servicios Jurídicos y los Servicios asociados de Atención Ciudadana y Archivo activo.

Teniendo en cuenta la utilidad pública a la que va a ser destinado, resulta posible acordar la cesión de uso gratuita planteada a favor de una administración local.

El edificio cuyo uso se solicita permanece desocupado desde enero de 2012 sin que se prevea su reutilización por el Gobierno Vasco, al ser necesaria su rehabilitación para adaptarse, entre otros, a los requisitos actualmente exigibles por la normativa sobre accesibilidad, eficiencia energética o protección acústica, con el respeto a las limitaciones derivadas de su condición de edificio catalogado. Además, aún manteniéndolo cerrado, el edificio genera gastos de mantenimiento, que irán incrementándose a medida que vaya pasando el tiempo sin usarlo.

Por ello, la opción de la cesión gratuita manteniendo el inmueble dentro del Patrimonio de Euskadi, se considera oportuna al derivar al consistorio los gastos derivados de su mantenimiento así como los necesarios para su rehabilitación.

Educación

912.800 EUROS PARA EL PROGRAMA DE AUXILIARES DE CONVERSACIÓN EN CENTROS EDUCATIVOS PÚBLICOS

El Consejo de Gobierno ha acordado, a propuesta de la consejera de Educación, autorizar la suscripción de un convenio de colaboración entre el Departamento de Educación y el Ministerio de Educación, Cultura y Deportes, para la dotación de auxiliares de conversación a centros educativos de Euskadi, durante el próximo curso 2017-2018.

Mediante este convenio el Departamento de Educación dispondrá durante el próximo curso de 163 auxiliares de conversación en sus centros públicos, fundamentalmente institutos de Educación Secundaria y Escuelas Oficiales de Idiomas, con el objetivo de impulsar y fomentar en esos centros el aprendizaje de las lenguas extranjeras. De los 163 auxiliares que financiará el Departamento de Educación, 147 serán auxiliares de conversación en lengua inglesa, diez en lengua francesa y seis en lengua alemana.

El Departamento de Educación destina 912.800 euros para la financiación de las estancias de este personal durante el curso 2017-2018. Además de la ayuda económica mensual que percibirán, las personas incluidas en el Programa de Auxiliares de Conversación serán beneficiarias de una póliza de accidentes, así como de responsabilidad civil para el titular, mientras dure su estancia en el programa.

Refuerzo a la oralidad

El o la auxiliar de conversación es un licenciado reciente o un estudiante universitario de último curso en su país de origen, al que no se le atribuyen las responsabilidades propias del profesor o profesora titular, por lo que no imparte la docencia en solitario. Así pues, los auxiliares de conversación únicamente asisten al profesorado titular en clase de lengua extranjera, y sus funciones específicas van encaminadas fundamentalmente a reforzar las destrezas orales del alumnado. Imparten clases durante 12 horas semanales acompañados por el profesor o profesora titular, pero nunca en solitario.

Bajo la coordinación y supervisión del profesor o profesora, se le podrán asignar al auxiliar tareas como: las prácticas específicas de conversación, la formación del profesorado, la elaboración de materiales que se centren en el aprendizaje de la lengua y la cultura, o la enseñanza de la cultura de su país.

Salud

EL GOBIERNO VASCO DESTINA EN 2017 UN TOTAL DE 2.600.000 DE EUROS A FINANCIAR PROYECTOS DE INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO EN SALUD

El Gobierno Vasco destinará este año 2.600.000 euros a financiar proyectos de investigación y desarrollo en salud. Con dos objetivos prioritarios: aumentar el impacto de las actividades de I+D+i orientadas a la mejora de la salud de la ciudadanía y la contribución a la generación de riqueza; y mejorar la financiación de la investigación e innovación en salud, con recursos tanto internos como externos.

El Consejero de Salud, Jon Darpón, ha informado hoy al Consejo de Gobierno del contenido de la Orden de ayudas, a la que podrán acceder los agentes integrados en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación (RVCTI). Una convocatoria enmarcada en la Estrategia de Investigación e Innovación en Salud 2020, además de en el Plan de Ciencia y Tecnología 2020 y la Estrategia de Especialización Inteligente RIS3 Euskadi.

El propósito último de las actuaciones reguladas en la Orden es contribuir a mejorar la salud y bienestar de la ciudadanía, así como coadyuvar en el desarrollo socioeconómico de Euskadi, a través del apoyo a la generación, transferencia y/o aplicación del conocimiento en el ámbito biosanitario mediante proyectos de investigación con enfoque traslacional y colaborativo.

Se configura así en el ámbito de biociencia-salud esta nueva convocatoria que integra en una única norma dos líneas de apoyo diferenciadas:

- Por una parte, la promoción de la actividad investigadora sanitaria a través de proyectos de I+D que refuercen la capacidad del sistema sanitario y su contribución a la generación e integración de conocimiento, para satisfacer mejor las demandas del sistema sanitario y de la sociedad.

- Por otra, la potenciación de la investigación en salud de carácter estratégico, a través de proyectos de I+D surgidos a partir del liderazgo sanitario y del aprovechamiento de las capacidades científico-tecnológicas del País Vasco, que permiten avanzar en la valorización y desarrollo de nuevos productos, procesos o servicios.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO DA LUZ VERDE AL NUEVO CONVENIO DE COLABORACIÓN EN MATERIA DE POLÍTICA LINGÜÍSTICA QUE SE FIRMARÁ CON NAVARRA E IPARRALDE

- **Se trata de la primera ocasión en la que se impulsa un acuerdo de estas características entre las tres instituciones**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la propuesta de acuerdo de colaboración en materia de política lingüística entre el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco, Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, dependiente del Gobierno de Navarra, y el Organismo Público del Euskera, en Iparralde. Se trata de la primera vez que se impulsa un acuerdo de estas características entre las tres instituciones con el objetivo fundamental de impulsar el euskera.

El programa de gobierno Euskadi 2020, aprobado para la legislatura 2016-2020, recoge en su punto 119 el compromiso de “articular y fortalecer la colaboración interinstitucional de los tres territorios del euskera”. Aunque la relación entre las tres administraciones en materia de euskera no es nueva y existen convenios a dos, se trata de la primera vez que se impulsa un acuerdo de estas características entre las tres instituciones. El acuerdo no cuenta con contenido económico, si bien detalla los principios, ámbitos e iniciativas sobre las que se asentará esta colaboración.

El acuerdo fija cinco ámbitos en los que desarrollará la colaboración: educación y capacidad lingüística; uso del euskera; ámbitos de reflexión y seminarios; investigación sociolingüística y corpus; y ámbitos para desarrollar la política lingüística en el marco europeo. El convenio que se firmará detalla medidas concretas en cada uno de estos ámbitos. Los pormenores de esta iniciativa se presentarán en las próximas semanas, una vez que el expediente supere el trámite administrativo y las tres instituciones firmen el acuerdo.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO DESTINARÁ 670.000 EUROS PARA SUBVENCIONAR LA RENOVACIÓN DE FONDOS POR PARTE DE LAS BIBLIOTECAS

- **Un total de 50.000 euros irán destinado a la compra de lotes fundacionales para bibliotecas de reciente creación**

El Gobierno Vasco ha aprobado hoy una dotación económica de 670.000 euros con el fin de ayudar económicamente la compra de nuevos fondos por parte de las bibliotecas vascas. El objetivo de esta ayuda es atender convenientemente las necesidades de los usuarios de la Red de Lectura Pública dentro del ámbito de Euskadi.

Esta aprobación obedece a lo establecido en la Ley 11/2007, de 26 de octubre, de Bibliotecas de Euskadi, que indica que el departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cultura establecerá anualmente en sus presupuestos programas de ayudas para la dotación de fondos. Además, el Decreto 82/2017, de 11 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística, determina que es competencia del Servicio de Bibliotecas desarrollar y acometer las funciones que correspondan al Sistema Nacional de Bibliotecas de Euskadi.

Estas subvenciones contemplan dos modalidades:

- Ayudas para la compra de lotes fundacionales para bibliotecas de nueva creación. A este tipo de ayudas se destinarán 50.000 euros.
- Ayudas destinadas a la renovación del fondo de las bibliotecas ya existentes. Esta partida contará con una dotación de 620.000 euros.

De esta manera, el Gobierno Vasco hace suya, conjuntamente con los titulares de las bibliotecas de la Red de Lectura Pública de Euskadi, la responsabilidad de dotar de fondos a dichas bibliotecas, para que puedan atender convenientemente las necesidades de las personas usuarias. El Departamento de Cultura y Política Lingüística ha mantenido durante los últimos años la inversión en fondos para la red de bibliotecas, y ha sumado, además, la inversión en fondos para e-Liburutegia.

Seguridad

APROBADA LA SUBVENCIÓN ANUAL PARA EL FUNCIONAMIENTO ORDINARIO DE LOS PARTIDOS POLÍTICOS

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy la propuesta de acuerdo presentada por el Departamento de Seguridad por la que se establece la distribución de las subvenciones que se conceden para el año 2017 a las formaciones políticas.

La Ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2017, contempla una partida de 4.536.000 €, destinada a subvencionar a los partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco para atender sus gastos de funcionamiento ordinario.

La partida será distribuida por el Gobierno Vasco entre las formaciones según los criterios establecidos en la Ley de Financiación de Partidos Políticos y tomando como base los resultados electorales de las últimas elecciones autonómicas celebradas el 25 de septiembre de 2016.

La distribución de subvenciones para el presente ejercicio se establece de la siguiente manera:

EAJ-PNV	1.750.903,84 €
EH-BILDU	1.033.826,51 €
Elkarrekin-Podemos	690.569,17
PSE-EE (PSOE)	558.134,51 €
PP	502.565,97 €